



fagorederlandaldea

**LANEKO SEGURTASUN ETA  
OSASUNEKO POLITIKA**

2022/05

## Laneko Segurtasun eta Osasuneko Politika

FAGOR EDERLAN TALDEAK prozesu eta lantoki seguruak eta osasungarriak izateko konpromisoa hartzen du, Taldeko pertsona guztientzako, baita Laneko Segurtasunarekin eta Osasunarekin inplikaturik dauden pertsonak ere, "Zero Istripu" izateko helburuarekin, eta, horretarako, konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- ISO 45001 arauan oinarritutako Kudeaketa Sistema bat izatea, Laneko Segurtasuna eta Osasuna babesteko eta hobetzeko funtsezko elementu gisa. Sistema horrek, herrialde bakoitzean indarrean dagoen legeria eta beste betekizun batzuk betetzeaz gain, langileen lan baldintzak etengabe hobetzea eta haien osasuna sustatzea nahiz laneko indarkeriaren prebentzioa eta antolaketa-ingurune egokia ahalbidetuko du, dauden lan arriskuen (Segurtasuna, higienikoak, ergonomikoak eta izaera psikosozialekoak) aldizkako ebaluazioak eginez, larrialdi aurre egiteko jarduketak ezarri eta istripuak eta gertakariak modu eraginkorrean kudeatuz.
- Arriskubideak ezabatzea eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko arriskuak murriztea, eta, horretarako, Plan Estrategikoetan eta Gestio Planetan horretara bideratutako baliabideak sartuko dira, eta makina seguruak, postu ergonomikoak, Lan-kargaren banaketa egokia, babes ekipamendu kolektiboak eta individualak, gai kimikoak segurtasunez manipulatzeko bitartekoak eta suteetatik babesteko sistemak jarriko dira.
- Lan Arriskuen Prebentzioaren kudeaketa erakundearen maila guztietan sartzea, kudeaketa horrek dakartzan ardurak definituta eta ardura horiek arrakastaz beteko direla bermatzeko behar diren bitartekoak eta trebakuntza eskainita.
- Prebentzio kultura bat garatzea, Taldeko pertsona guztiek Laneko Segurtasun eta Osasunarekin modu autonomoan eta proaktiboan konpromisoa har dezaten.
- Ezarritako helburuen eta edukitako lorpenen berri ematea langileei, langileak partaide bihurtzea eta haiei kontsulta egitea.
- Prestakuntzarako programak eta parte hartzeko kanalak ezartzea, FAGOR EDERLAN TALDEko pertsona guztiek Politika, Helburuak eta Kudeaketa Sistema betetzeko aurreikusi diren jarduerak gauzatzeko konpromisoa hartu dezaten.